

## "GIZON JATOR ETA EREDUGARRI BAT JOAN JAKU"

Bizi garean aldiotan, euzkerea egoera larrian dagola esatea ez da gauza arrigarria. Egia esateko, arazo asko daukaz, oso banatuta dago, eta orretzaz ganera, benetako euzkerea, euzkera errikoia, geroago eta geiago baztertuta dago. Ikusi, bestela, zelango jokabidea daroien bere alde lan egin bearke leukeenak: sasi-euzkera edo "el batua" ori sartu nai ta naiez, eta besteak... or konpon.

Zorionez, euzkera errikoia alde ba doguz lan bikaina egiten dabenak. Esaterako: "Euzkerazaleak Alkartea", "Euzkerazaintza", "Arbasoen Izkuntza-Zaleak", besteak beste. Baita gizaseme batzuk be: Aita Lino Akesolo, Aita Santi Onaindia, Augustin Zubikarai... eta abar. Eta zati aundi baten euri eskerak geure izkuntza ederrak bizirik dirau ondiño.

\*\*\*

Zoritxarrez be, mundu onetatik asko joan jakuz eta orrein artean bat aitatuko neuke: AITA LINO AKESOLO, il barri jakuna, ain zuzen be. Benetako samintasuna eta goilbetasuna sentidu neban bere eriotzareu barri jaso nebanean. Asikera, ezin neikean siñistu ori. Baiña, egia osoa gogorra izaten da eta barri ori egiazkoa zan.

Ezpai barik, Geure euzkerek, eta batez be euzkera errikoiak, aldeze aundi ta zintzo bat galdu dau, eta Aita Linok itzitako utsunea oso gatxa izango da betetea.

Berak euzkerearen alde egindako lana, erraldoi baten lana da. Neurte-eziña, parebakoa eta ezin-obeia. Zorionez, bere emoitza be itzelak izan ziran eta orain

euzkera-jatorraren alde gabiltzanok, geure izkuntza benetan maite badogu berari jarraitu bearke dautsagu.

\*\*\*

Danok, gazteak eta zarrak, euzkeldun zarrak eta barriak, bide beretik joanda, geure alegiñak batu bear doguz; olan, emoitza onuragarriak lortuko dira. Alan be, gauzak ez dagoz batere errezak, eta asko kostauko da aurrera egitea. Une orreitan, baiña, Aita Linoren indarra eta kemena gogoratu bear doguz.

Gaur, iñoiz baiña geiago, euzkerek geure laguntza bear dau eta ez dogu uts egiterik, ez dogu laketu bear otzitasunak edo alperkeriak gu menperatu gaizanik. Ori ez, ezelan be.

Orretan dogu gizon eredugarri ta zintzoa AITA LINO. Euzkeldun sendoa, bai egoera bikaiñetan eta bai ordu latzetan. Beti bere elburuari eutsiaz, atzera egin barik.

Ikasi daigun beragandik eta ekin zintzo-zintzo geure biarrari, geure asmoak betetu gura badoguz; auxe da: Euzkereari indar aundia emotea eta geure Aberri osoa euskalduntzea.

\*\*\*

Amaitzeko, azken agurra emon AITA LINOri, Jaungoikoaren Erreñuan betiko Bakea eta Zoriontasuna artuko dauzalakoan. Goian Bego eta Egun Aundirarte.

MALAX-ETXEBARRI TAR JON  
"KALAMUA"

### EUSKAL-ASTEA BIZKAIERAZ

Aurten be, urte guztietan lez, egingo dogu Euskal-Astea, Bilbao'ko Eskolapiotarren Ikastetxean.

Aurten abenduan egingo dogu, igazko egunak eragozpen batzuk eukezelako. Egunak abenduaren 9'tik 13 ra arte. Eta gaiak: Elertia, Irakaskintza euskeraz, Labayru Ikastegia, Euskalerriaren kondaira, landara-iztia izango dira eta orrelakoren bat eziña izan ezker, olerkigintza ta Basondo'ko Santimamiñe leizak.

Izlariak aukeratzen diardugu, baiña guztien baietza artu ez dogun ezker, urrengo illean agertuko dogu euren zerrendea.

Euskaldun guztiok, eta batez be Bilbao'tarrak, ez utsik emon aste oneri. Gauza jakingarriak dira eta izlariak jakitunak.

EUSKERAZALEAK